EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

ALTZA PASEALEKUKO 20-22 KOMUNITATEEKIN EGIN BEHARREKO HITZARMENAREN INGURUKO INTERPELAZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Altza pasealekuko 20-22 komunitateekin hitzarmenaren inguruko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Gune Publikoetako Batzordean 2016ko uztailaren 11ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Iaz onartutako inbertsio planean, Udalbatzak Altza pasealekuko 20-22 komunitateekin 59.950 euroko diru-laguntzarekin hitzarmen bat egitea onartu zuen, EH Bilduren zuzenketari esker, merkataritza galerietako itoginak behingoz konpontzeko. Gure harridurarako, merkatariek, Udal Gobernuko ordezkariekin egon eta gero, hitzarmeneko diru kopurua itoginak kentzeko ez dutela erabiliko esan digute haserre bizian.

Inbertsio plana EAJ-PSE eta EH Bilduren arteko akordioa izan zen. Beraz bete egin behar da, eta Udal Gobernuak bere hitza bete dezan, lan egingo dugu. Hala ere, plana onartu zenetik urtebete joan denean, ulergaitza da egoera hau.

Zinegotzi ordezkariak, batzordean, atzerapenak eman direla onartu zuen, baina hitzarmena lehenbailehen mahai gainean jarriko zuela adierazi zuen. Ez zuen xehetasun gehiagorik eman, ordea.

Hori dela-eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako mozio hau aurkezten du:

MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Altza pasealekuko 20-22 komunitateekin akordioa lehenbailehen itxi dezala eta hitzarmenean 59.950 euroko diru-laguntza argi jaso dadila.

Donostian 2016eko uztailaren 15ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia